

**KIROLA**

BL-EGIZU	ESPARRU Ari ekarpena
EKARPENA	<p>Haur eta gazteei zuzendutako kirol eskaintzaren %75a euskaraz izatea. Bai Getxoko Udalak antolatzen duena, bai enpresek antolatzen dutena, bai ikastetxeek antolatzen dutena eta baita elkarteek antolatzen dutena ere. Irizpide hori udalaren dirulaguntza oinarri guztietan jaso beharko litzateke.</p> <p>Getxo Kirolakek begiraleen euskalduntzea bermatu beharko du eta horretarako doako euskara klaseak eta baliabideak emango zaizkie, kirol-hizkuntzan oinarrituak.</p> <p>Euskarazko entrenamenduak sustatzeko GK-ko dirulaguntzetan entrenatzaile euskalduna izateak puntu gehiago lortzeko ahalbidetuko dio elkarteari. Entrenatzaileari GK-k berak egingo dio entrenamenduen jarraipena hauek euskaraz egiten dituela bermatzeko. Gehitu Kirola programaren bidez entrenatzaileari aholkuak emango zaizkio entrenamenduak euskaraz nola egin behar dituen azaltzeko.</p>
<p><b>Ekarpena planean aurreikusita dagoela uste da.</b></p>	
AZALPENA	<p>Getxoko Kirolakek gazte eta umeentzat eskainitako ikastaroak BIZIren arabera egiteko prozesuan daude.</p> <p>Getxo Kirolakeko langileei dagokionez, euskara ikasteko erraztasunak eskaintzen zaizkie eta era berean Euskara Zerbitzuak eskaintzen duen lanerako trebakuntzarako aukera izaten dute.</p> <p>Getxoko kirol elkarte eta klubei ematen zaizkien diru-laguntzetan, derrigorrezkoa da diruz laguntzen diren ekitaldien komunikazio guztia elebitara izatea lehentasuna emanaz euskarazko testuari. Horrez gain, oinarrizko kirolean, hau da elkarte eta klubek burutzen dutenean, helburu moduan adierazten da ume eta gazteekin erabili beharreko hizkuntza nagusia euskara izatera jo behar dela; horregatik ekitaldien garapenerako erabiltzen den hizkuntza euskara izateak, %10 puntu ematen du gaur egun.</p> <p>Azpikontratututako enpresetako begiraleei euskara ezagutzea eskatzen zaie eta erabilerarako formazio txikia ere eskaintzen zaie. Ez Getxo Kirolakek ezta Getxoko Udalak ez du bitartekorik sarri aldatzen diren eta jatorrian euskara jakin behar duten langile hauei euskarazko klaseak emateko; kontratuaren arabera esleipena jasotzen duen enpresa da</p>

	<p>beraien euskara maila ziurtatzeko arduraduna eta beraien kirol hizkuntza-gaitasuna bermatu behar duena.</p> <p>Esan bezala eta hirugarren ahapaldiari erantzunez, ume eta gazteekin lan egin eta Getxo Kirolakekin kontratua duten enpresetako monitoreek euskara lehenengo egunetik jakin behar dute eta Getxoko elkarte eta kirol-klubek laguntzak jasotzeko aukera gehiago izaten dute euskaraz aritzen diren monitore edo begiraleak kontratatuz gero.</p>
--	---

2

GUK	1. HELBURUKo 2. ekintzari ekarpena
EKARPENA	Se incentivará el aprendizaje del euskera a través de becas que impliquen la gratuidad de los cursos cuando se cumpla el aprovechamiento de los mismos.
Se considera que el plan cumple la propuesta	
AZALPENA	<p>Getxoko Udala ez da euskara ikasteagatik laguntza eskaintzen duen erakunde publiko bakarra; Jaurlaritzak HABEren bitartez eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere laguntzen dute.</p> <p>Erakunde publikook, modu osagarrian jokatzeko arlo honetan; Bizkaiko Foru Aldundia eta HABEren laguntza-sistemek ikasleen aprobetxamendu akademikoa laguntzen duten bitartean, Getxoko Udalak euskaltegiko asistentzia laguntzen du.</p> <p>Diru kopuruari buruz ere modu osagarrian jokatzeko da; zenbait kasutan euskara ikastea doakoa da eta baldintzak betetzen dituzten kasurik txarretan, ikasleak ordaindutako matrikularen %80a laguntzen da.</p> <p>Beti ere hiru erakundeon arteko informazio trukaketaren bitartez gain-ordainketa ekiditen da.</p> <p>Getxoko Udalak esfortzu handia egiten du helduen euskalduntzean: Udal Euskaltegia izateaz gain, herriko beste euskaltegiei ere laguntzen die Getxoko Udalak; azkenik, euskara ikasteko diru-laguntzak eskaintzen dizkie herritarrei eta horretan baldintzak malgutzeko ahalegin handia egin du Udalak herritarrek ahalik eta aukera gehien izan dezaten laguntza hauek jasotzeko.</p>
ACLARACIÓN	<p>EL Ayuntamiento de Getxo no es la única institución pública que ayuda a l aprendizaje del euskera; en concreto el Gobierno Vasco a través de HABE y la Diputación Foral de Bizkaia también realizan aportaciones destinadas al aprendizaje de la lengua.</p> <p>Las instituciones públicas actuamos de manera coordinada y complementaria; mientras la Diputación y el Gobierno Vasco ayudan el</p>

	<p>aprovechamiento académico que pueda tener el/la alumna/o, el Ayuntamiento de Getxo valora la asistencia al euskaltegi.</p> <p>Esta complementariedad también se extiende a lo subvencionado ya que en algunos casos el aprender euskera puede resultar gratuito y en el peor de los casos y siempre que se reunan las condiciones mínimas establecidas, se recupera el 80% de lo invertido en la matrícula.</p> <p>La sobrefinanciación se evita con el trasvase continuado de información entre las tres instituciones.</p>
--	---

BILDU		1. HELBURUko 3. ekintzari buruzko galdera
GALDERA	Nola sakonduko dugu BIZIN? Azken bi urteko baloraziotik abiatuko al da proposamena? Zehaztasun falta nabari dugu, euskararen erabilera udal-erakundeetan sustatzea helburu duen proiektuan. Zer egingo da udal-kirol taldeetan euskararen erabilera areagotzeko?	
ERANTZUNA	<p>Getxo Kirolakek bere jardueretan eta funtzionamenduan euskara sustatzeko duen konpromisoaren barruan, BIZIren ezarpena urratsez-urratsekoa izango da, urtero adin talde batetako umeekin burutzen diren ekintzetan txertatuz beti ere erakundeak eskura dituen bitartekoak horretarako aukera ematen duten neurrian.</p> <p>Kirol taldeei dagokionez, Getxo Kirolakek beraiekin duen harremanaren barruan euskararen presentzia eta erabilera indartu nahi da.</p>	

BILDU:		2. HELBURUko 4. ekintzari ekarpena
EKARPENA	Getxo Kirolakeko langileen lan egin behar da, barne-harremanei dagokienez. Getxo Kiroleko langileen euskara-erabilera sustatu beharra dago, klub eta kirol-taldeen euskalduntzea sustatu ahal izateko.	
Planean aurreikusitako proposamena da		
AZALPENA	<p>Getxo Kirolakeko langileen arteko harreman informalak euskaraz izateko saioak egin izan dira, hala nola langileen sarea edota trebakuntza eskaintza. Horrez gain eta gainontzeko langileekin egiten den bezala, eskura dituzten hizkuntza-baliabideak eskaini zaizkie.</p> <p>Umeekin lan egiten duten monitoreen kasuan, euskara ez dakienari edo maila nahiko baxua duenari, euskara klaseak eskaintzen zaizkio eta aurten adibidez 3 langile ibili izan dira euskaltegian.</p> <p>Kanpoko kontratazio bidez datozen monitoreen kasuan, ostera, hizkuntza irizpideetan eskatzen da euskaraz jakitea eta gero sentsibilizazioa eta formazioa eskaintzen zaie beraien eguneroko lanean agertu ahal zaizkien egoeren aurrean zelan jokatu jakiteko eta lanean daudenean beraien arteko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin.</p>	